

Kontratazioa egin aurretiko informazioa kontratatzailearentzat**1. Aseguru-entitate bitartekariaren sozietate-datuak.**

- Aseguru-entitatea: Kutxabank Vida y Pensiones, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U. (Aurrerantzean “Kutxabank Vida y Pensiones”) egoitza soziala Euskadi plaza, 5 - 28. solairua - 48009 Bilbo, Bizkaia helbidean duena eta IFK-zk.: A-48272363 duena. Ekonomia Gaien eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioako Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Orokorraren kontrolpean dago, eta haren Erregistro Administratiboan inskribatuta dago, C0654 kodearekin.
- Bitartekaria:
 - Banku-aseguruen operadorea: banku-aseguruen operadoretzat jotzen dira kreditu-erakundearen banaketa-sareak erabiliz aseguru-tako banaketa-jarduera aseguru-agente gisa egiten duten kreditu-erakundeak.
 - Kutxabank, S.A. (aurrerantzean “Kutxabank”). Kutxabank da Kutxabank Vida y Pensiones-en banku-aseguruen operadore eskusiboa, eta hark baimena ematen dio Kutxabank Aseguradorearekin eragiketarako egiteko.
 - Kutxabankek aseguru-entitatearen izenean eta haren kontura jarduten du, eta diruzko ordainsari bat jasotzen du harengandik aseguruaren banaketa-jarduerarengatik; komisio bat aseguruaren prezioaren gainean, hain zuzen.
 - Kutxabanken identifikazio-datuak hauek dira:
 - Egoitza soziala: Kale Nagusia 30-32, 48009 - Bilbo.
 - Ekonomia Gaien eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioako Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Orokorraren aseguru- eta berraseguru-banatzaileren Erregistro Administratibo Berezian inskribatuta dago C0654A95653077 zenbakiarekin, eta www.dgsfp.mineco.es webgunearen bidez edo Paseo de la Castellana, 44, 28046 Madrid helbidera erakunde horri zuzendutako posta bidez jo daiteke bertara.
 - Kutxabankek % 100eko partaidetza zuzena du Kutxabank Vida y Pensiones-en eta Kutxabank Aseguradorearen kapital sozialean.
 - Kutxabankek ez du aholkularitza eskaintzen merkaturatutako aseguru-produktuei dagokienez.
 - Aseguru honen ezaugarriak bezeroek adierazitako beharretara moldatzen dira.

2.- Produktuaren izena.

Kutxabank Urrezko Bizi Asegurua.

3.- Aseguru-mota.

“Kutxabank Urrezko Bizi Asegurua” aldi baterako urteko bizi-aseguru berriztagarria da (aurrerantzean “AUB”). Berme nagusi gisa hauek estaltzen ditu: Aseguratuaren heriotza –edozein arrazoi dela-eta–, Aseguratuaren eta haren bikotekidearen –ezkontidea edo izatezkoa– aldebereko heriotza istripu berean, Aseguratuaren gaixotasun larriak, Aseguratuaren ehorzketa-gastuetarako laguntza eta Aseguratuaren kreditu-txartelako eta banku-kontuetako zorpekoak deuseztatzea.

Aukeran, edozein arrazoigatiko ezintasun iraunkor eta absolutuaren estaldurak gehitu daitezke; baita kapital bikoitza edo hirukoitza ere, heriotza edo ezintasun iraunkor eta absolutua istripu batek edo zirkulazio-istripu batek eragin baditu, hurrenez hurren.

4.- Osasun-adierazpena.

Bezeroak behar bezala bete beharko ditu aseguru-eskaera eta bertako osasun-adierazpena. Era berean, arriskua behar bezala baloratzeko behar den informazioa eman beharko dio aseguru-entitateari. Betebehar horiek ez betetzeak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea galtzea edo murriztea ekar dezake heriotza gertatuz gero, edo, hala badagokio, ezintasun iraunkor eta absolutua egonez gero.

5.- Eskaintako berme aseguragarrien deskribapena.**5.1.- Berme nagusiak:**

- Edozein arrazoirengatiko heriotza.
- Aseguratuaren eta haren bikotekidearen (ezkontidea edo izatezkoa) aldebereko heriotza istripu berean (kapital gehigarria dakar).
- Ehorzketa-gastuetarako laguntza (kapital gehigarria dakar).
- Kreditu-txartelako eta banku-kontuetako zorpekoak deuseztatzea (kapital gehigarria dakar).
- Gaixotasun larriak (kapital gehigarria dakar).

5.2.- Aukerako berme osagarriak:

Berme nagusia baztertzen duen berme osagarri gisa, eta kapital gehigarririk gabe: ezintasun iraunkorra eta absolutua.

Aukerako berme osagarri gisa, dagokion kapital gehigarriarekin:

- Istripuagatiko heriotza.
- Istripuagatiko ezintasun iraunkor eta absolutua.
- Zirkulazio-istripuagatiko heriotza.
- Zirkulazio-istripuagatiko ezintasun iraunkor eta absolutua.

Kontratazioa egin aurretiko informazioa kontratatzailearentzat**5.3.- Kontratazio-mugak:**

Edozein arrazoi dela-eta Aseguratua hiltzen denerako dagoen berme nagusia Aseguratuak 70 urte betetzen dituenean amaituko da.

Gainerako berme guztiak automatikoki deuseztatutako dira aseguru nagusia deuseztatzen bada edo muga-eguna iristen bada edo Aseguratuak 65 urte betetzen dituenean.

Deskribatutako bermeetako bat estaltzeak, gaixotasun larriak salbu, aseguru amaitzea dakar.

6.- Kontratuaren esklusioak.

Aseguratu beharreko bermeen multzoarentzako mugak eta esklusioak.

Baldin eta kontratuaren baldintza partikularretan muga horien balioa berariaz itutzen ez bada, aseguratu beharreko berme guztietatik kanpo utziko dira honako gertakari hauek:

1. Suizidioa: estalduraren lehen urtean, aseguru-entitateak ez du estaltzen zio horregatik heriotza-arriskua. Epe hori igarota, onartu egiten da aipatutako arriskua. Aseguratuak bere borondatez eragindako heriotza da suizidioa.
2. Aseguratuak dolozko jokaera izatea edo hutsegite larriak egitea, aseguru-eskaeran ageri den osasun-egoera deklaraterakoan edo aseguru kontratatzeko bete behar den mediku-galdetegian.
3. Heriotza –edo, hala badagokio, ezintasun iraunkor eta absolutua– gertatutako datan Kontratatzailerak ordainketan eguneratua ez egotea.
4. Aseguru indarrean sartu aurretik gertatutako istripuak eta horien ondorioak.
5. Aseguru-eskaera sinatzen den data baino lehenagoko gaixotasun edo istripuren baten ondorioz zuzenean edo zeharka sortutako heriotza edo, hala badagokio, ezintasun iraunkor eta absolutua.
6. Kanpoan geratzen dira beren izaerarengatik Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estaltzen dituen arriskuak.

Modu gehigarrian, istripuak eragindako Aseguratuaren heriotzaren bermerako, bermeen multzorako xedatutakoez gain, honako esklusio hauek xedatzen dira:

1. Aseguratuak nahita eragindako istripuak.
2. Aseguratua buru-nahaste egoeran edo medikuak agindutakoak ez diren edari alkoholikoen, droga toxikoen edo sorgogarrrien eraginpean dagoela gertatutako istripuak. Edari alkoholikoen eragina dagoela ulertuko da Aseguratuak istripua gertatzen den datan indarrean dauden trafikoari buruzko, motordun ibilgailuen zirkulazioari buruzko eta bide-segurtasunari buruzko araudian xede horretarako xedatutako alkohol-mugak gainditzen dituenean.
3. Judizialki hala deklaraturako Aseguratuaren zuzurtziagabekeria edo zabarkeria larri baten ondorioak; baita ere Aseguratuak delituzko ekintzetan, apustuetan, duelu edo liskarretan parte hartetik eratoritzen direnak ere, azken kasu horretan, baldin eta hark bere defentsa legitimoan edota pertsonak eta ondasunak salbatzeko asmotan jokatu ez badu.
4. Aseguratua edozein kiroletan profesional gisa aritzearen ondoriozko istripuak.
5. Aseguratua lehiaketako edozein kiroletan aritzearen ondoriozko istripuak.
6. Aseguratua, afizionatu gisa, honako kirol hauetako batean aritzearen ondoriozko istripuak: gorputz-borroka, boxeoa, arte martzialak; oro har, urpeko kirolak, bai arnasteko aparatuek erabiliz edo erabili gabe egindako urperatzeak eta bai itsas zabalean egindako ur-kirolak; mota guztietako aireko kirolak, esaterako, parakaidismoa, delta hegala, parapentea, globoa, ultra-arinak eta antzekoak; automobilismoa, motoziklismoa; errugbia; alpinismoa, eskalada eta espeleologia; puenting eta antzekoak.

Modu gehigarrian, zirkulazio-istripuak eragindako Aseguratuaren heriotzaren bermerako, bermeen multzorako xedatutakoez gain, honako esklusio hauek xedatzen dira:

1. Istripuagatik heriotza-bermerako baldintza berezietan xedatutako esklusioak.
2. Aseguratuak edozein motatako kirol-probetan pilotu gisa, kopilotu gisa edo bidaiari soil gisa parte hartzearen ondorioz gertatutako istripuak.

Modu gehigarrian, edozein arrazoi eragindako ezintasun iraunkor eta absolutuaren bermerako, bermeen multzorako xedatutakoez gain, honako esklusio hauek xedatzen dira:

1. Aseguratuak nahita eragindako ezintasun iraunkor eta absolutua, suizidio-saioaren ondorioak barne.
2. Aseguratua buru-nahaste egoeran edo medikuak agindutakoak ez diren edari alkoholikoen, droga toxikoen edo sorgogarrrien eraginpean dagoela gertatutako istripuak. Edari alkoholikoen eragina dagoela ulertuko da Aseguratuak istripua gertatzen den datan indarrean dauden trafikoari buruzko, motordun ibilgailuen zirkulazioari buruzko eta bide-segurtasunari buruzko araudian xede horretarako xedatutako alkohol-mugak gainditzen dituenean.
3. Judizialki hala deklaraturako Aseguratuaren zuzurtziagabekeria edo zabarkeria larri baten ondorioak, baita Aseguratuak delituzko ekintzetan, apustuetan, duelu edo liskarretan parte hartetik eratoritzen direnak ere; azken kasu horretan, baldin eta hark bere defentsa legitimoan edota pertsonak eta ondasunak salbatzeko asmotan jokatu ez badu.

Modu gehigarrian, istripuak eragindako ezintasun iraunkor eta absolutuaren bermerako, bermeen multzorako xedatutakoez gain, honako esklusio hauek xedatzen dira:

1. Edozein arrazoi eragindako ezintasun iraunkor eta absolutuaren bermerako baldintza berezietan xedatutako esklusioak.
2. Aseguratua edozein kiroletan profesional gisa aritzearen ondoriozko istripuak.
3. Aseguratua lehiaketako edozein kiroletan aritzearen ondoriozko istripuak.
4. Aseguratua, afizionatu gisa, honako kirol hauetako batean aritzearen ondoriozko istripuak: gorputz-borroka, boxeoa, arte martzialak; oro har, urpeko kirolak, bai arnasteko aparatuek erabiliz edo erabili gabe egindako urperatzeak eta bai itsas zabalean egindako ur-kirolak; mota guztietako aireko kirolak, esaterako, parakaidismoa, delta hegala, parapentea, globoa, ultra-arinak eta antzekoak; automobilismoa, motoziklismoa; errugbia; alpinismoa, eskalada eta espeleologia; puenting eta antzekoak.

Kontratazioa egin aurretiko informazioa kontratatzailearentzat

Modu gehigarrian, zirkulazio-istripuak eragindako ezintasun iraunkor eta absolutuaren bermerako, bermeen multzorako xedatutakoez gain, honako esklusio hauek xedatzen dira:

1. Edozein arrazoik eragindako ezintasun iraunkor eta absolutuaren bermerako baldintza berezietan xedatutako esklusioak.
2. Istripuak eragindako erabateko ezintasun iraunkor eta absolutuaren bermerako baldintza berezietan xedatutako esklusioak.
3. Aseguratuak edozein motatako kirol-probetan pilotu gisa, kopilotu gisa edo bidaiari soil gisa parte hartzearen ondorioz gertatutako istripuak.

Modu gehigarrian, istripu berak eragindako Aseguratuaren eta bere bikotekidearen heriotzaren bermerako, bermeen multzorako xedatutakoez gain, honako esklusio hauek xedatzen dira:

1. Istripuak eragindako heriotza-bermerako xedatutako esklusioak.
2. Zirkulazio-istripuak eragindako heriotza-bermerako xedatutako esklusioak.

Modu gehigarrian, gaixotasun larrien bermerako, bermeen multzorako xedatutakoez gain, honako esklusio hauek xedatzen dira:

1. Baldintza hauetako "Arrisku Estaliak" atalean xedatutako definizioetara doitzen ez den edozein gaixotasun edo esku-hartze.
2. Hartutako Immunoeskasiaren Sindromearen ondorio diren edo haiekin zerkusia duten gaixotasunak, emaitza positiboa izan duen antigorputzen test baten bitartez edo HIESaren birusaren test baten bitartez berretsiak.
3. Aseguratu buru-nahaste egoeran edo medikuak agindutakoak ez diren edari alkoholikoen, droga toxikoen edo sorgogarrrien eraginpean dagoela gertatutako istripuak. Edari alkoholikoen eragina dagoela ulertuko da Aseguratuak istripua gertatzen den datan indarrean dauden trafikoari buruzko, motordun ibilgailuen zirkulazioari buruzko eta bide-segurtasunari buruzko araudian xede horretarako xedatutako alkohol-mugak gaintzen dituenean.
4. Judizialki hala deklaraturako Aseguratuaren zuhurtziagabekeria edo zabarkeria larri baten ondorioak; baita ere Aseguratuak delituzko ekintzetan, apustuetan, duelu edo liskarretan parte hartzetik eratoritzen direnak ere, azken kasu horretan, baldin eta hark bere defentsa legitimoan edota pertsonak eta ondasunak salbatzeko asmotan jokatu ez badu.
5. Aseguratu edozein kiroletan profesional gisa aritzearen ondoriozko istripuak.
6. Aseguratu lehiaketako edozein kiroletan aritzearen ondoriozko istripuak.
7. Aseguratu, afizionatu gisa, honako kirol hauetako batean aritzearen ondoriozko istripuak: gorputz-borroka, boxeoa, arte martzialak; oro har, urpeko kirolak, bai arnasteko aparatuak erabiliz edo erabili gabe egindako urperatzeak eta bai itsas zabalean egindako ur-kirolak; mota guztietako aireko kirolak, esaterako, parakaidismoa, delta hegala, parapentea, globoa, ultra-arinak eta antzekoak; automobilismoa, motoziklismoa; errugbia; alpinismoa, eskalada eta espeleologia; puenting eta antzekoak.

Modu gehigarrian, kreditu-txarteletako eta banku-kontuetako zorpekoak deuseztatzeko bermerako, bermeen multzorako xedatutakoez gain, honako esklusio hauek xedatzen dira:

1. Edozein arrazoik eragindako ezintasun iraunkor eta absolutuaren bermerako baldintza berezietan xedatutako esklusioak.

7.- Ordaintzen amaitzeko baldintzak, epeak eta datak.

Kutxabank Urrezko Bizi Asegurua **aldizkako ordainketa-asegurua** da.

Ordainketa helbideratu beharko da Kutxabanken irekitako kontu batean. Kontratatzailea kontuaren titularra izango da, eta epetan ordaindu ahal izango da, errekar gurik gabe, baldin eta ordainagiriaren zenbatekoa aseguru-entitateak une bakoitzean ezarritako kopurua bada. Aseguruaren prezioa urtero igoko da Aseguratuaren adinaren arabera.

Lehen ordainketa Kontratatzailearen erruz ordaindu ez bada, aseguru-entitatea libre geratuko da bere betebeharretatik (Aseguru Kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legearen 15. artikulua; aurrerantzean "Aseguru Kontratuaren Legea").

Hurrengo ordainketak hitzartutako moduan eta baldintzetan ordainduko dira. Ordaintzen ez bada, kontratuaren estaldura etenda geratuko da ordainagiria ordaintzeko epea amaitzen den egunetik aurrera (graziazko epea), eta kontratua iraungita geratuko da, baldin eta aseguru-entitateak ez badu ordainketa erreklamatzeko hurrengo sei hilabeteetan (Aseguru Kontratuaren Legearen 15. artikulua).

Prezioa kalkulatzeko, kapitala, bezeroaren adina eta osasun-adierazpenean jasotako gainerako inguruabarrak hartzen dira kontuan.

8.- Kontratuaren iraupena.

Kontratuaren iraupena urtebetekoa da hasiera-datatik hasita.

9.- Kontratu amaitzeko baldintzak.

Kontratu isilbidez luzatuko da ez badiote luzapenari idatziz salaketarik egiten Kontratatzaileak, gutxienez hilabete aurretik, edo Aseguru Entitateak, bi hilabete aurretik, urtero berritzeko eguna baino lehenago (Aseguru Kontratuaren Legearen 22. artikulua).

Aseguru-entitateak kontratu suntsitu ahal izango du, alde batetik, ez ordaintzeagatik (Aseguru Kontratuaren Legearen 15. eta 95. artikuluekin bat etorritik), edo, bestetik, Kontratatzailearen edo Aseguratuaren adierazpenetan errezeloren bat edo zehaztasunik eza egoteagatik (Aseguru Kontratuaren Legearen 12., 89. eta 90. artikulua).

10.- Suntsiarazteko eskubidea.

Kontratatzaileak kontratu bere kabuz suntsiaraz dezake, arrazoiak zein diren adierazi gabe, kontratu entregatzen zaion datatik hasi eta hurrengo 30 eguneko epean. Edo, aseguru Internet bidez kontratatu bazuen, kontratu egin zela adierazi zen egunetik aurrera edo Kontratatzaileak kontratu-baldintzak jaso zituen egunetik aurrera, egun hori ondorengoa bada (Aseguru Kontratuaren Legearen 83.a) artikulua eta Kontsumitzaileentzako Finantza-zerbitzuak Urrutitik Merkaturatzeari buruzko uztailaren 11ko 22/2007 Legearen 10. artikulua).

Kontratazioa egin aurretiko informazioa kontratatzailearentzat**11.- Prestazioaren onuradunaren izendapena.**

Aseguratuaren heriotzaren, Aseguratuaren eta haren bikotekidearen aldibereko heriotzaren eta ehorzketa-gastuetarako laguntzaren bermeak.

Kontratatzaileak Onuradunak izenda ditzake, eta izendapen hori aldatu Aseguru Entitatearen baimenaren beharrik gabe.

Berriazko izendapenik ez badago, Onuraduna lehentasunez eta ordena baztertzaile honetan finkatuko da:

- Aseguratuaren ezkontidea, legez bananduta ez badago; halakorik ez balego:
- Aseguratuaren seme-alabak; halakorik ez balego:
- Aseguratuaren gurasoak; halakorik ez balego:
- Aseguratuaren legezko jaraunseak.

Ezintasun iraunkor eta absolutuaren eta gaixotasun larriaren bermeak.

Prestazioaren onuraduna Aseguratu izango da beti.

Kreditu-txarteletako eta banku-kontuetako zorpekoak deuseztatzeko bermea.

Kreditu-txarteletako eta banku-kontuetako zorpekoak deuseztatzeko bermerako, Onuraduna Kutxabank, S.A. da, eta Onuradunak deuseztatuta egongo balira, heriotza-bermerako izendatutakoak.

12.- Erreklamatzeko prozedurak.**Erreklamazioak egiteko barne-prozedurak:**

Edozein bezerok aurkeztu ahal izango ditu bere kexa eta erreklamazioak, bere interesen eta legez aitorturiko eskubideen inguruan, Aseguru-entitatearen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan idazkia aurkeztuz.

Erreklamazioak egiteko kanpo-prozedurak:

Edozein bezerok aurkeztu ahal izango dizkio erreklamazioak Ekonomia Gaienean Eraldaketa Digitalaren Ministerioko Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorren Erreklamazio Zerbitzuari (Paseo de la Castellana, 44, 28046 Madrid); horretarako, egiaztatu beharko du erreklamazio horiek alde aurretik idatzi bidez aurkeztu dituela Aseguru Entitatearen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan eta aurkeztu ondoren bi hilabete pasatu direla ebazpenik izan gabe, edo ez direla onartu edo eskaerari uko egin zaiola.

Edozein bezeroren eta Aseguru-entitatearen artean sor daitezkeen gatazkak epaile eta epaitegi eskudunek ebaztzeko dituzte.

13.- Legeria aplikagarria.

Bizi-aseguru hau arautzen dute, nagusiki: Aseguru Kontratuaren Legeak; uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoak (aurrerantzean, "LOSSEAR"); Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak (aurrerantzean "RDOSSEAR"); eta aseguruaren banaketari buruzko araudiak.

14.- Zerga-erregimena.

Heriotza-prestazioek Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga ordainduko dute.

Ezintasuneko prestazioek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordainduko dute.

15.- Aseguru-entitatearen finantza-eta kaudimen-egoera.

Kontratatzaileak Aseguru-entitateak urtero argitaratuko duen finantza-eta kaudimen-egoerari buruzko txostena baliatu ahal izango du.

16.- Itzulketa aurreratzeagatik, murriztapeneko edo mozkinetako partaidetzen balioak.

Kontratu honek ez du itzulketa aurreratzeagatik, murriztapeneko edo mozkinetako partaidetzen baliorik begiesten.

Kontratazioa egin aurretiko informazioa kontratatzailearentzat

17.- Datuak Babesteko Araudi Orokorra.

Europar Batasunaren Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean "DBEO") aurreikusten dena betez, ondoren zenbait informazio emango dizugu aurrekontratu- eta/edo kontratu-harremanean zehar Kutxabank Vida y Pensiones emandako Eskatzailearen, Kontratatzailearen, Aseguratuaren eta/edo Onuradunaren datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, osasun-datuak barne.

Datuak babesteko buruzko oinarriko informazioa	
Arduraduna	Kutxabank Vida y Pensiones, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U. (aurrerantzean "Kutxabank Vida y Pensiones")
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> Kontratua egin aurreko harremana eta/edo kontratu-asegurua formalizatzea, kudeatzea eta/edo exekutatzea. Datu pertsonalak gordetzea, kontratu-harremana formalizatzen ez bada etorkizunean egin daitezkeen eskaerak kudeatzeko (6 hilabete).
Legitimazioa (oinarri juridikoa)	<ul style="list-style-type: none"> Aseguru-aurrekontratuaren eta/edo aseguru-kontratuaren exekuzioa. Interes legitimoa, Kutxabank Vida y Pensionesek kudea eta exekuta dituzan etorkizuneko kontsultak edo eskaerak, azkenik harekin kontratu-harremanik formalizatzen ez bada.
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> Berraseguru-erakundeak berraseguru-arrazoiengatik. Erakunde publikoak. Kutxabank Vida y Pensiones Taldeko beste sozietate batzuek zure datuetarako sarbidea izan dezakete, tratamenduaren arduradun gisa, zurekin kontratua egin aurreko eta kontratuaren harremanaren kudeaketaren inguruko banaketa- eta/edo zentralizazio-zerbitzuak eskaintzeko. Horrez gain, zure datuetan sartzeko aukera izan dezakete honelako zerbitzuak eskaintzen dituzten hirugarren batzuek: banaketa, zerbitzu profesionalak (perituak, kanpoko abokatuak, hala dagokionean, zentro medikoek), mezularitza eta dokumentu-kudeaketa zein zerbitzu informatikoak. Halaber, kontratuaren edozein kudeaketa gehigarrik eskatzen dituen zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoa den beste edozein arduradun, bai eta kanpoko profesionalak dagokienez balizko edozein prestazio kudeatzeko ere.
Nazioarteko transferentziak	Zure datu pertsonalak ez dira datuen nazioarteko transferentzietarako erabiliko.
Datuak babesteko oinarriak	<ul style="list-style-type: none"> Tratatuko diren datu pertsonalak (bai eta, hala dagokionean, osasun-datuak) aseguru-aurrekontratuaren esparruan eta/edo aseguru-kontratuaren adierazitakoak izango dira. Tratatuko diren datuak Kontratatzaileari eta/edo Aseguratuari buruzkoak izan daitezke, edota aseguru-kontratuarekin zerkusua duen hirugarren pertsonaren bati buruzkoak ere.
Eskubideak	Datu pertsonalei dagokienez haietan sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, informazio gehigarriaren adierazitakoaren arabera.
Informazio gehigarria	Zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehigarria eta xehatua kontsulta dezakezu hemen: www.kutxabank.com (Aseguruak).